


IKASLE KOPURUAREN ERREKORRA HAUTSI DA, GUZTIRA 6.400 IZAN BAITIRA EKITALDI HONETAN

Datorren urtean gainditu egin nahi dute aurtengo ikastaroen arrakasta

Balantze ona egin zuten atzo EHUko udako ikastaroetako arduradunek amaitu berri den XV. ekitaldiaz. Aurtengorako jarri zituzten helburuen errepassoa egin, eta guztiak hein handi batean bete direla ikusita, arrakasta hitza erabili zuten.

Jone Larrañaga / Donostia



Uda honetan Miramar jauregian izandako ikastaroetako bat.

EDURNE KOCH

HIRU ikuspegitatik ikusita azpimarratu zuen ikastaroen arrakasta Ricardo Etxepare zuzendariak: zerbitzuen funtzionamendu eta antolaketaren ikuspuntutik, ikastaroetan parte hartu dutenek espero zutena bete izanarenetik eta ikasle kopuruarenetik. Kopuruari dagokionez, aurtengo ekitaldiak marka guztiak hautsi ditu. Guztira, 6.400 lagun izan dira ikastaroetan, horien artean ia mila Espainiako Pedagogia Kongresura etorritakoak. Ikasle kopuruak aurreikuspen objektiboak ere gainditu ditu; «gehiiegizkoa» izan dela ere aitortu zuten atzo. Miramar jauregiko azpiegiturak kontuan hartuta, ikasle kopuruak goi-muga jo duela esan liteke, beraz.

Ikasle horien artean askok gai orokorreko buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzeko jo dute ikastaroetara. Etxepareren arabera, unibertsitate hedapena bultzatzea lortu dutela erakusten du horrek. Gainera, profesionalen heziketa iraunkorra eskaintzeko helburua ere ondo bete dute —3.000 profesional izan dira udako ikastaroetan, tartean 2.000 irakasle—.

Udako ikastaroen azken helburua, ordea, gaur egungo eztabaida gaien buruzko erreferentzia gune izatea dela azpimarratu zuten atzo Ricardo Etxepare zuzendariak. Ikastaro bakoitzaren amaieran ikasleek bete dituzten inkestetan ikus daitezkeen

nez, oro har, eztabaida gai horiek ondo jorratu direla ikus daiteke.

Hala eta guztiz ere, kexuak ere izan dira, eta horiek guztiak ikastaroak hobetzeko erreferentzia egokia izango direla azaldu zuten.

Izan ere, aurtengo ekitaldia amaitu berria den arren, hurrengo urtean zer hobe litekeen pentsatzen hasiak dira antolatzaileak. Ikasle kopuruaren aldetik goia jo dutelarik, datorren urtean ikasleen beharrak eta ikastaroen

kalitatea hobetu nahi dutela azaldu zuten atzo ildo horretan. Ikastaroetako zuzendariak gehiago inplikatzeko eta baliabide ekonomiko gehiago ere nahi dute hurrengo urterako.

Horrez gainera, euskara gehiagi erabiltzeko ahaleginak egingo dituzte. Juanito Etxeberria ikastaroetako zuzendariordeak azaldu zuenez, irakasleen erdiak bertakoak dira, eta horien artean % 25 hitzaldiak euskaraz emateko gai. Ikasle asko Espainiako probintzietatik etorritako

koak direnez, ordea, euren eskolak erdaraz eman izan dituzte orain arte.

Baina hemendik aurrera, aldi bereko itzulpen zerbitzua bultzatu eta «irakasle elebidunak hitzaldiak euskaraz eman ditzaten zirikatu» nahi dituztela jakinarazi zuten. «Merezi duen ahalegina izango da», iritzi dio Etxeparek.

Azkenik, aurtengo ikastaroetan izan diren berrikuntzak finkatzera joko dute. Dokumentazio eta komunikazio arlokoak izan dira ekitaldi honetako berrikuntza nagusiak. Alde batetik, ikasleek teledokumentazio zerbitzua izan dute euren zerbitzura, ikastaroetan jorratzen ari ziren gaien buruz informazio zabala izan zezaten. Horrez gainera, bideo-konferentziaz baliatu dira eta Internet sarearen bidez zabaldu dituzte ikastaroak mundu osorako. X

DBH emango duten ikastetxeak prest daudela uste du Hezkuntza sailak

«Ez gara inprobisatzen ari», adierazi du Edurne Gumuzio zuzendariak

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

DERRIGORREZKO Bigarren Hezkuntza (DBH) indarrean jartzen hasiko diren ikastetxeak prest daudela adierazi du Edurne Gumuzio, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailko Berrikuntza Pedagogikorako zuzendariak. «Gaur, irailak 9, zentroak ikasleak hartzeko prest daude», esan zuen atzo. Adierazpenok Gasteizen egin zituen, DBHri buruzko jardunaldien hasiera ekitaldian.

Gumuzioren arabera, Hezkuntza Sailetik «laguntza handia» ematen ari zaie EAEko ikastetxeei DBH behar bezala ezartzen has daitezten. Berrikuntza Pedagogikorako buruak departamentuak urratutako bide osoa azaldu zuen biltzarren inaugurazio hitzaldian. Esaterako, irakasleen euskalduntzean «bermeak» daudela adierazi zuen, eta, oro har, «presa handiz» ari dela aitortu arren, inprobisaziorik gabe dihardutela.

Egunotan hasten ari den ikasturtea da DBHren aplikazioaren abiapuntua. DBHk bi ziklo ditu —bakoitza bi ikasturterekin—, eta bere ondorioz garrantzitsuena da derrigorrezko eskolaratze epea 16 urtera arte zabalduko duela, hots, orain arte baino bi urte gehiago.

DBHren nondik-norako guztiak aztertzeke hasi zen atzo Jardunaldi Pedagogikoaren seigarren ekitaldia. Mintegi honen bidez laguntza eman nahi diete Euskal Autonomi Elkarteke irakasle, hezitzaile eta pedagogoei, «irakaskuntzako langileei laguntza estrategia batzuk proposatuz, DBHren aplikazioa amildegi batera salto egitea bezala gerta ez dakien». Jardunaldiotan 400 lagun inguru biltzea espero dute. Goizeko saioetan ikasgai bakoitzaren aplikazioaren gainean ariko dira Pedagogi Aholkularitza Taldeko kideak. X

Itoizko Koordinakundeak Mexikon bilera egin du IANBAGeko idazkari nagusiarekin

Nazioarteko erakundeak bitartekaritza lana egiten du ingurugiro gatazketan

Erredakzioa / Iruñea

JOSE LUIS BEAUMONT Itoizko Koordinakundeko ordezkaria Ramon Ojeda Mestres Ingurugiro Arazoetarako Nazioarteko Bitartekaritza eta Adiskidetze Gorteko (IANBAG) idazkari nagusiarekin bildu zen Mexikon, joan den abuztuan. 1995eko abenduan, Itoizko Koordinakundeak Itoizko urtegiaren gatazkan parte hartzeko eskatu zion IANBAGi. Nazioarteko erakundeak koordinakundearen eta Administrazioaren arteko bitartekaritza lana egiteko proposamena onartu egin zuen, eta aurtengo maiatzean Madrilgo Ingurugiro Ministerioari arazoari irtenbide negoziatua bilatu ahal izateko laguntza eskaini zion. Harrezkeroztik

lau hilabete igaro dira, baina IANBAGek ez du Madrilan erantzunik jaso. Hain zuzen ere IANBAGen eta Ingurugiro Ministerioaren arteko harremanak zertan diren jakitea zen Beaumontek Mexikora egindako bidaiaren xede nagusia.

Ojedak Beaumonti azaldu zionez, honako hau izan da IANBAGek estatu bateko buruzagien gandik erantzunik jaso ez duen estreinako aldia. Nazioarteko erakundearentzat Espainiako Gobernuaren jarrera harrigarria eta ulertezina izan dela gaineratu zuen. Halaber, hilaren 12an eta 13an IANBAGeko kideek Grezian egiten duten bilkuran Itoizko urtegiaren gaia jorratuko dutela iragarri zion. Beaumontek, bestalde, Ingurugiro Ministerioaren

jarrera ikusita IANBAGek hartu beharreko neurriak har ditzala eskatu zion nazioarteko erakundeko buru mexikarrari.

Itoizko Koordinakundeak, hedabideetara igorritako prentsa oharrean, gogor kritikatu du Ingurugiro Ministerioaren jarrera. Urtegiaren aurkarien aburuz, «Administrazioak berriro ere atea itxi dio Itoitzen sortutako gatazkari irtenbide negoziatua bilatzeko aukerari». Idazkiaren arabera, «tamalez, Itoizko Koordinakundea da arazoaren konponbidea bilatzen ari den bakarra, eta zeregin horretan behin eta berriaz aurrez aurre topatzen ditu, legez kanpo egonda ere, norgehiagokaren alde apustu egiten duten Administrazioako partaideak». X

HONDARRIBIKO IKASTOLA BITERI ESKOLA - Tfnoa: 64.37.62

KURTSO HASIERA

HAUR HEZKUNTZA

SATARKAN:

SARRERA: - 2 urtekoak, EMANDAKO ORDUTEGIAN
- 3 urtekoak, GOIZEKO 10ETAN
- 4 urtekoak, GOIZEKO 9ETAN

SOROETAN: - 5 urtekoak, GOIZEKO 9ETAN

IRTEERA: EGUERDIKO 12ETAN

LEHEN HEZKUNTZA: (1go mailatik - 6. mailara)

SARRERA: GOIZEKO 9ETAN eta IRTEERA 13ETAN

AUTOBUSA: Goizeko 8,30etan aterako da MENDELUTIK